

KOSTUEN EGITURA

Gure produktua aurrera eramateko, hasiera batean, 20.000 euroko inbertsio bat egin behar izango dugu, ekoizpenean, lehengailetan, publizitatean, web-orriaren sormenean, diseñatzailean eta beste enpresen bidez produktua saltzeko kostuan. Beste alde batetik, enpresa sortzeko kostuak ere izango ditugu, hala nola, notarioa, zergak...

Ekoizpenari dagokionez, funtsezko jardueretan aipatu bezala, beste enpresaren esku utziko dugu gure enpresak ez duelako produzitzeko ahalmenik. Halere, kontratatutako disenatzaileak, produktua grafikoki ikusarazi arren, baita ere teknologikoki ikusaraziko du, hau da, ekoizpen enpresak nola sortuko duen produktua aginduko du; ze materialarekin, forma, aplikatuta izan behar dituen sistemak... Langile honi dagokion kostua 800€koa izango da.

Sareen bidezko publizitatea, hau da, google eta facebook en bidezkoak, 500€ko kostua izanen dute. Kasu hauetan oso erraza da nahi dugun publikora iristea, sareetan baitaude gordeta bakoitzaren interesak.

Web orriaren kostua 300€koa izango litzateke, web-orri sinplea izango baita, gure produktua saltzeko besterik ez.

Azkenik, lehengaiei dagokienez, ordenagailu bat behar izango dugu web orria antolatzeke eta produktuen salmenta kontrolatzeko. Honek 700€ko kostua izango du.